GABON KANTAK

LASKORAIN IKASTOLA

Gaueko izar

Gaueko izar argitsuena
piztutzerakin batera,
haurtxo eder bat etorri zaigu
bart arratsean etxera.

Ordu ezkero etzeko denak
portu ta zoratzen gara,
haurra delako zerutik honuntz
datorren jainko Berbera.
(Bi aldiz)

Argi berriak

Argi berriak gauez piztu dira
piztu dira piztu dira
kanta kanta dezagun aleluia
kanta aleluia.

Kanta dezagun kanta aleluia
aleluia aleluia
kanta dezagun kanta aleluia
kanta aleluia.

Haur eder baten bila

Haur eder baten bila
gabiltza zoratzen
ta izarrak esan digu
galdetzeko hemen.

Jangoikoaren herri
maite Jerusalen
esan zaiguzu laster
Jesus non jaio den. (Bi aldiz)

Izar bat agertu da
dizdira zeruan
keinuka ari zaigu
gabon gauerdian.

Abenduak gaur

Abenduak gaur hogeitalaugarrena
goazen artzaintxoak goazen
Belena
Aingeruak agertu dira eta
goazen Bethleem goazen lehen
bait lehen.

Jesus jaio da eta
goazen artzaiak alairik
horra, hementxe degu bera ta
ekin bat edo batzuek dantzara.

Zeruko goi goitik, lurreraino
jaitsi,
gizonari handik bakea ekarri

Ardirik ederrenak, gaztaintxorik
onenak
ardirik ederrenak zuretzako
dira. (Bi aldiz)

Ai hau gauaren zoragarria

Ai hau gauaren zoragarria
Jesus jaio da Belenen
herririk herri bila gabiltza
bila gabiltza beraren.

Aingeruak kanta, artzai onak
dantza
guztiak alabantza zuri zor
dizugu.
Astoak A! Idiak MU! Atseginik
badegu.

Hartu makilak eta jantzi abarkak
artzainak joan ziraden Jesusen
bila.

Ai zer atsegina dan dantzan
jende guztia,
salto brinko eginik denak joan
ziren.

Mendi aldetik datoz

La lara la la la la …

Mendi aldetik datoz,
artzainak artzainak,
bildotsa bat harturik
bizkar gainean.

Gabon gauean kanta
kanta aleluia kanta aleluia
aleluia gabon gatean kanta
kanta aleluia gauean.

La lara la la la la …

Haur txiki bat jaio da
Belenen Belenen,
guztion jainkoa da
poztu gaitezen.

Gabon gauean kanta …..

La lara la la la la …

Gabona

Gabona festa alaia,
gabona alaitasun garaia (Bi aldiz)

Gure herriak argiz beteak
etxeetan zuhaitza,
suaren ondoan gaude
goxo,aurpegietan poza.

Elurra jantzi abarkak
kalera guztiak alaitzera (Bi aldiz)

Olentzero da berriz herrian
gure alaigarri,
abestuz goaz kaleetan zehar
denontzat zoriona. ZORIONAK!!

Joxepe eta Maria

Joxepe eta Maria
belengo herrian
ostatu bila dabiltza
gau hotzaren erdian

Kalian gora kalian behera
jo batera ta bestera
etxe guztiak itxita daude
inork ez du nahi atera.

Leihoak ireki eta
batek die galdetzen
gaueko ordu hauetan zer
zabiltzate hemen.

Kalian gora kalian behera
jo batera ta bestera
zugana gatoz gau hontarako
ostatua eskatzera.

Alper alperrik zatozte
erantzun du barrendik
nik ez daukat lekurik eta
alde agudo hemendik

Kalian gora kalian behera
jo batera ta bestera
triste ta umil iritsi dira
noizbait estalpe batera.

Gaueko hamabietan
bi abere artean
munduko salbatzailea
jaio zaigu lurrean.

Kalian gora kalian behera
ez dabiltz orain eskean
estalpetxoan kantari daude
biak Jesusen aurrean.

Belengo estalpean

Belengo estalpean jaio da Josu
Goazen bai denok hara
Ematera muxu (bis)

Ikastolako haurtxoak gara
Eta poz- pozikan ibiltzen gara.
(bis)
Eguarri, Eguarri bihar da Eguarri
Zoriona eta osasuna beti zueri
(bis).

Hator, Hator

Hator, hator mutil etxera
gaztaina ximelak jatera.
Gabon gaua ospatutzeko
aitaren eta amaren ondoan.
Ikusiko duk aita barrezka
amaren poza atseginez.

Eragiok mutil
aurreko danbolinari
gaztainak erre artian
gaztainak erre artian
Txipli txapla pum

Gabon gaua pozik igaro dezagun

Oilarra kanta kantari

Oilarra kanta kantari,
kukurru kukurruku
kalejiran gabiltza
kukurru kukurruku.
Eguarri gaua ospatzen
kukurruku kukurruku.
Jesus jaio da Belenen
kukurru kukurruku.(bis)

Olentzero

Hemen heldu gerade
berri on batekin,
gure Enbajadore
Olentzerorekin. (bis)

Olentzero begi gorri
non harrapatu dek arrain hori ?
Zurriolako harkaitzetan
gauerdiko hamaiketan. (bis)

Horra!Horra! Gure Olentzero
Pipa hortzian dula eserita dago
kapoiak ere baditu
arraultzatxoekin
bihar meriendatzeko
sagardoarekin, sagardoarekin.

Soinu jota dantzan dabil
pozik jendea
bidean erori zaigu
Artzain-andrea.
Hauxen da nekea, horrela
ibiltzea
saskia ere galdu zaigu
kapoiz betea

Olentzero buru handia
Entendimentuz jantzia
Bart arratsean edan omen du
Hamar arroko zagia
Hori duk tripa handia
Tralarala, tralarala. (bis)

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin ikatz egitera.
Aditu duanian Jesus jaio dela
laisterka etorri da berri
ematera.

Horra! Horra! Gure Olentzero
Pipa hortzian dula eserita dago
kapoiak ere baditu
arraultzatxoekin
bihar meriendatzeko
sagardoarekin, sagardoarekin.

Soinu jota dantzan dabil
pozik jendea
bidean erori zaigu
Artzain-andrea.
Hauxen da nekea, horrela
ibiltzea
Saskia ere galdu zaigu
Kapoiz betea.

Gaueko izar

Gaueko izar argitsuena
piztutzeakin batera
Haurtxo eder bat etorri zaigu,
bart arratsean etxera.

Ordu ezkero etxeko denok poztu
ta zoratzen gara,
Haurra delako zerutik hona
datorren
Jainko berbera. (bis)

Horra Mari Domingi

Horra Mari Domingi begira horri
gurekin nahi duela Belena etorri,
gurekin nahi baduzu Belena
etorri
atera beharko duzu gona zahar
hori.
Hatoz, hatoz zure bila nenbilen ni
(bis)
hatoz goazen adora dezagun
Belenen jaio den Haurtxo eder
hori (bis).

Begira nolakoa

Begira nolakoa
Belengo Haurtxoa
polita baino ere, politagoa.
Lo dago,loo
ixo bai, ixo
Ixil, ixilik egon
Pa! mateko.
Hara, hara, Mariaren Haurtxoa
Hara, hara Belenen jaio da (bis).

Bizar zuri bizar zuri

Gabonak Gabonak hau zoriona
Bertsotan ari zaigu gaur aitona
Ja,ja,ja barrezka dago amona.

Bizar zuri, bizar zuri
mendi gainak zuri zuri
Zorionak zorionak
bertan ditugu Gabonak.

Tximini zulotik norbait sartu da
buru beltz, begi gorri aiba lio
Olentzero dela halaxe dio.

Bizar zuri, bizar zuri...

Gaztelu beretik gaur Olentzero
Alferrontzi, mozkor eta tripero
Hor dago, sutondoan bero bero.

Bizar zuri, bizar zuri...

Mendi aldetik datoz

Mendi aldeti datoz
Artzainak, artzainak
Bildots bana harturik
Bizkar gainean.

Gabon gauean kanta
kanta Aleluia!
kanta Aleluia!
Aleluia gabon gauean kanta
kanta Aleluia!
gauean.

Haur txiki bat jaio da
Belenen, Belenen,
guztion jainkoa da,
poztu gaitezen.

Gabon gauean kanta...

Trakatan, trakatan

Trakatan, trakatan hiru errege
trakatan, trakatan Belenera,
Belenen jaio den Jesus Haurtxoa
trakatan, trakatan agurtzera
Meltxorrek trakatan
Zaldia beltza,
Gasparrek trakatan
zaldi gorri.
trakatan, trakatan
Baltasar zaharrak
zaldia trakatan, zuri zuri.

Begira nolakoa

Belengo Haurtxoa
polita baino ere, politagoa.
Lo dago,loo
ixo bai, ixo
Ixil, ixilik egon
Pa! mateko.
Hara, hara, Mariaren Haurtxoa
Hara, hara Belenen jaio da (bis).